



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LABek ez ditu Trumpen muga-zergei aurre egiteko Tubos Reunidosek planteatutako neurriak onartzen

Atzo uztailaren 19an enpresak Trumpen muga-zergei aurre egiteko neurri batzuk aurkeztu ondoren, Tubos Reunidoseko langileok gure eskubideak murrizteko ahalegin berri baten lekuko izan ginen. Enegarrenez, Zuzendaritzark enpresa-batzordeari eskatu zion bere betiko bidetik doazen neurri batzuk ontzat emateko, langileon prekarietatea handitzea suposatzen dutenak, hain zuzen ere.

Berriz ere eta oporren atarian, langileon artean ziurgabetasuna besterik sortzen ez duten neurri batzuk mahai gainerratu zizkiguten, beste behin erakutsiz zein den bere "fedea ona".

- Lehena Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espediente bat da, oraingoan 21 hilabetetarako eta 2002an Bushen administrazioak inposatu zituen muga-zergen iraupenarekin kointziditzen duena.
- Bigarrena malgutasuna da.
- Hirugarrena langileon mugikortasuna.
- Laugarrena deslokalizazioa da orain arte TRIn egin izan diren lanak kanpora ateratzean oinarritzen dena eta etorkizun oso hurbilean EEBBetara bidali nahi dituztenak.

Suposatzen dugu aipatu plana momentu honetan aurkeztea ez dela kointzidentzia hutsa. Zuzendaritza honek erakutsi du badakiela denborak ondo erabiltzen. "Oso gogor ari gara honetan lanean" edo "ez dugu ezer berririk" bezalako esaldiekin, gain izan dira iazko urritik hona hitzarmenaren ez negoziazio bat luzatzeko 30 bilerara baino gehiagorekin, guztien artean 8 ordu baino gehiago iraun ez dutenak. Baina neurriak datoz aurtengo urterako aurrekonturatutako tona gehienak honezkero lantegitik atera direnean.

LABek datorren astelehena, uztailaren 23ko bilerara eramango duen jarrera oso argia da:

- TRiko zuzendaritzari, gure hitzarmena desblokeatzea eta benetan eta fedea onez negoziazio mahaian esertzea eskatzen diogu. Hau da zabalik dagoen negoziazioa eta lehenbailehen itxi beharko litzatekeena.

- Tubos Reunidoseko zuzendaritza batzordeari exijitzen diogu langileontzako lan eskubideen murrizketarik izango ez duen plan industrial jar dezala mahai gainean.
- Akziodunei eskatzen diegu euren gain har ditzatela muga-zergek Tubos Reunidosen ekarriko dituzten gastuak.
- Dei egiten diogu enpresa-batzordeari gainontzeko langileekin parteka dezala aurkitzen garen egoera, guztion artean, egin diguten enegarren erasoari aurre egiteko.
- Langileei dei egiten diegu mobilizazioaren bidez gure eskubide guztiak defendatzera.

Amurrion, 2018ko uztailaren 20an